



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Azpeitia

Hondakinetatik baliabideetara

Bigarren Hezkuntza (Bigarren Zikloa)

ÁRLO/IKASGAIA: Biologia eta geologia.

Gure egunerokoan erabiltzen ditugun objektuak eta materialak naturako baliabideetatik datoz. Horregatik, garrantzitsua da horiek zaintzea eta ez alferrik galtzea. Ikas esperientzia honetan, ikasleek materialen bizi-zikloa ezagutuko dute eta hondakinak murrizteko 7R estrategiak landuko dituzte. Gainera, uraren indarra erabiltzen duen errota bat bisitatuko dute, artoa irin bihurtzeko prozesua ezagutuz.

Horrela, ikasleek ulertuko dute baliabide naturalek balioa dutela eta objektuei bigarren bizitza emateak ingurunea zaintzen laguntzen duela.

Zer egin dezakegu baliabideak hobeto aprobetxatzeko eta hondakin gutxiago sortzeko?